



Miren Jone
Azurza
Aristegieta

Kazetari aitzindaria

(1929)

BIDeGILEAK

Egilea:

Elixabete Garmendia



MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

(1929)

Aitzindari izatea suertatu zitzaion Miren Jone Azurzari; edo zehatzago esanda, aitzindari izaten asmatu zuen. Lehen emakumezko kazetari tituludun euskalduna zen XX. mendeko 60ko hamarkadaren bukaeran, *Zeruko Argia* astekariaren zuzendaritza hartu zuenean; berrogei urte geroago, 2011ko uztailaren 2an, han egindako lanaren esker ona jaso zuen, Andoainen, Ohorezko Rikardo Arregi sariaren bidez. Ignazio Arregi jesuita kazetariarekin partekatu zuen saria, biei «euskarazko kazetaritzaren zutoin» izatea aitortzen zitzaielara.

Kazetaritzan segituz, *Deiako* erredaktore izan zen hamabi urtez, 1977an egunkaria sortu zenetik; ondoren, 1990etik 1996ra

bitartean, Setien gotzainaren prentsaburu. «Kazetari txartel ofiziala zuen emakumea izateak eskaini zizkidan sekula pentsatu ez nituen aukerak; baiezkoa eman nien pozik» dio, meritua arindu nahian bezala. Kazetaritza titulu horrek laburbiltzen du bere aitzindaritza, baina ez da hori zapaldu duen esparru bakarra.

Beste arlo batean, Misiolari Sekularren Institutu sortu berriko kide izan zen 50eko hamarkadan hasita, hogeita bat urtez, gizartearekiko konpromisoa eta kristautasuna bat eginez. Hori du, hain zuzen ere, gurasoengandik jasotako ondarerik estimatuena: erlijiotasuna, sinesmena eta euskara.

Etxeko terrazan, barrenean Antiguarako
bidea (2013-02-19)



Familia abertzalekoa, gerrako errepresalia-
tua izan zuen aita, eta Francoren aurkako
erresistentzian konprometituak lau anaiak,
erbestea edota kartzela jasandakoak. Be-
rak politikarena ez beste bide batzuk ibili
ditu, zorroztasunez eta koherentziaz. Gaur
egun, espiritualitatea ulertu eta bizi izate-
ko modu berria du egunerokoaren ardatz.
Eta sinesmen horrek esanarazten dio, hi-
tzak poetari hartuta: «Gizaki bakoitza-
rentzat prestatzen du Jainkoak bide berezi
eta estreinatu gabekoa».

Berak ibilitakoa idatzi gabeko gidoiare-
kin kontaktzen du, zuzen eta zehatz, baina
ez hotz. Izan ere, ariketa horren atzean
karga emozional handia dago, batez ere
gerrak familian eragindako urratu eta
minak gogoratzean. Ez zuen bere burua
Bidegileetan ikusten, eta kosta egin zaio
onartzea. «Ez nuen horrelakorik idaztea
nahi, baina egoskortu ere ez». Azkenean,
baiezkoa ematean, bere historia eskain-
tzen die «euskaldun emakumezko guztiei,
bai baitakit zenbat lan eta zenbat indar
behar izan duten bakoitzari bere bizitzak
eskatu dizkion eginkizunak ongi bete-
tzeko. Denak izan dira eta dira benetako
bidegileak».



IGELDON ETA USURBILEN JATORRIA

Antiguako donostiarra da Miren Jone. Haurtzaroko paisaia marraztean, itsasoa azaltzen zaio, eta Santa Klara uhartea, eta Urgull, eta Igeldo. Baserri banatatik zetozkion, ordea, bi aitona, harginak biak. Amaren aldetiko Joxe Joakin Aristegietak eraiki zituen Matia kaleko lehenengoetako etxeak, argindar eta guzti, XIX. mendea bukatzerako. Etxe haietako batean jaio

Itsasoa, bere betiko paisaia, ikusten du
etxetik (2013-02-19)



Anaia Joxe
Joakinekin (1931)

Amaren aldeko
aitona Joxe Joakin
Aristegieta,
lehen ilaran
eserita, ezkerretik
laugarrena (ca.
1920)



zen Miren Jone –Matia kaleko 14an, hain zuzen ere–, 1929ko maiatzaren 18an. Aurretik, beste seme bat zuten Azurza Aristegietatarrek: Joxe Joakin; gero etorriko ziren Ramon, Luis Mari eta Iñaxio.

Aita, Joxe Azurza, Igeldoko Arburu base-
rrikoa zen jaiotzaz. Fraideekin lehen ikas-
ketak egin Villa Mallorquinan, eta, buru
ona zuela-eta, aurrera egin zezan bultzatu
zuten mutila. Hala, irakasle ikasketak
amaituta, maisu lanean hasi zen, *don José*
bihurtuta: hasieran, Antiguako Maria
Kristina Erregina udal eskoletan –bertan,

Gerardo Bujanda eta Jesus Ferro izan zi-
tuen ikasle, bai eta Jesus Mari Alkain ere,
gerora Donostiako alkatea izango zena–;
1919tik aurrera, Groseko Biteri eskoletan
aritu zen.

Ama, Juli Aristegieta, Matia 14ko etxe
hartan bertan jaioa zen, 1900ean. Auzoko
eskolan ikasketak egin, frantsesa ikasi,
eta telefonista izateko azterketa gainditu
zuen; ezkondu aurretik, Gipuzkoako tele-
fono konpainian aritu zen, eta gerra ondo-
ren ere lan hartara itzuli zen, Espainiako
Telefónica konpainiaren barruan jada.

Matia 14ko etxe hark askotarako ematen zuen, eta, poliki-poliki, Miren Joneren mundua pertsonaiez betetzen joan zen –nabarmen, emakume kementsuak–. Bat, Anastaxi Sagardia amona, Usurbilgo Artikula baserrian jaioa. Zortzikia izan omen zen Miren Jone, eta sehaskan ur berodun poltsa jar ziezaiotela agindu omen zien sendagileak. «Bai zera!», amona Anastaxik, ez zuela behar, umea ondo egin zegoela-eta. Beste bat, Isabel Sagardia amaren lehengusua, etxabea mertzeria bat zeukana; ezkongabea izanik, berarekin bizitzera ekarri zuen Loren Arrillaga, umezurtz geratu berri baitzen; gerora, emakume abertzale eta ekintzailea izan zen Loren.

Izua omen zen Miren Jone umetan: beldurra ijitoei, beldurra *sakamantekasi*... Isabel Sagardiak sartutako beldurra, mertzeria aurreko eserlekuan mugitu gabe egon zitezten haurrak. Baina izutzeko, neskatoak ez zeukan etxetik atera beharrik: han zeukan anaia Joxe Joakin, mutiko bihurria, imintzioka, txantxetan, beldurrarazteko. Anaiak aitona Joxe Joakin Aristegietaren izena zeraman; Igeldoko Etxeluzer baserrian jaioa, hura ere gizon bromazalea, alaia eta antzerkizalea omen zen, eta hola ageri da 1910 inguruko argazki batzuetan, dotore jantzita.



Joxe Azurza beste bi maisu-maistrekin, eskuinetik lehena (ca. 1929)

Etxean izan zuen eskola Miren Jonek zortzi urtera arte: amak irakatsi zien seme-alabei irakurtzen eta idazten, eta baita lau erregelak ere. Tarteka, frantsesez hitz egiten omen zien, ikas zezaten; semeei, meza laguntzeko latina ere erakusten zien;



Aitaren aldeko
aitona-amonak:
Joxe Manuel
Azurza eta Juana
Joxepa Lekuona
(ca. 1895)

eta, hala, bide batez, Miren Jonek ere ikasi zuen latina. Ikasketak Antiguako plazan zegoen Lourdesko Kolegioan jarraitu zituen urtebetez *Azurzitak*, «diktadoak K-rekin idatziz –etxean hala ikasita–; señorita Rosariok, Angelitak eta loro batek (sic) osatzen zuten ekipoa».

Kale-kalean bizi izan arren, hurbil zeukaten mendia. «Itsasoa baino nahiago mendia: masustak bildu, goroldioa...». Igeldoko Arburu baserrian, Joxe Manuel Azurza eta Juana Joxepa Lekuona aitona-amonak zeukaten. «A zer bazkariak egiten ziren han San Pedro-

tan!». Bazuten beste sartu-etxe bat ere Igeldon, Buenavista jatetxea; hango jaki gozoak: txipirotiak, melokotoiak, mahatsa... Buenavistako etxekoandrea, Leku-Eder tabernakoa bezala, Artikulako senitartekoa zen.

Zinera eramaten zuen Loren Arrillagak Miren Jone igande arratsalde batzuetan. Etxean irratia zeukaten, artean oso zabaldu gabe zegoela; II. Mundu Gerraren ga-

raian, eguerditan, Londresko irratia jarri, eta isilik egon behar izaten omen zuten aitari trabarik ez egiteko. Baina irratiak musika ere bazekarren; aitaren kuttuna Tito Schipa, tenore italiarra; hark bezala, tenore ahots fina zuen Joxe Azurzak, eta Miren Jonek gogoan du nola kantatzen zizuten *Muñequita linda*, *A la orilla de un palmar* eta Elissanbururen *Ikusten duzu goizean*. Familia musikazale eta kantaria zen.

Batzokian ere ibiltzen ziren anai-arrebak, kantuan eta dantzari, harik eta gerrak familia zoriontsu haren bizimodua hankaz gora jarri zuen arte.



Matia kalean,
aitak egindako
patinetearekin
(1935)

AITARIK GABE

Estudioko argazki batean ageri dira ama, Juli, eta ordura arteko lau seme-alabak: Joxe Joakin, Miren Jone, Ramon eta Luis Mari; gazteena, Iñaxio, jaiotzeko zegoen artean. Argazkia aitari bidaltzeko atera zuten; izan ere, Joxe Azurzak alde egin behar izan zuen gerra garaian.

1936ko egunen batean hasi zen dena. Emakume bat joan zitzaion aitari hau esanez: eskolan bera ordezkatzeko aginduak zeukala. Joxe Azurza euskaltzalea zen; esaera hau bota ohi zien hurrei: «mendiek negar egiten dute erdara entzuten dutenean». Abertzalea ere bazen; ez, ordea, afiliatua; eta, hala ere, salaketa jarri zioten: Aberri Egunen batean izana zela, Gasteizen edo Iruñean... Kontua da



Antiguako batzokian; lehen ilaran, eskuinetik hasita bosgarrena Joxe Joakin anaia eta haren atzean Miren Jone (1934)



Aitari Iparraldera bidaltzeko egindako argazkia: Miren Jone, Ramon, ama, Luis Mari eta Joxe Joakin (1936)

zerrenda beltz batean sartuta zegoela. Bi lagun min etxetik atera eta fusilatu egin zituzten frankistek. Izutu egin zen gizona, eta Iparraldera ihes egin zuen, mendiz; Baionako kontsulatuan aurkeztu, eta ondo egin zuela esan omen zioten, fusilatzeke zerrenda batean zegoelako.

Jatsun, hegoaldeko haur aterpetuentzako kolonia batean aritu zen irakasle Joxe Azurza, mantenuaren truke. Tarteka, postala jasotzen zuten Matia kaleko etxean, *Louis Bonlieuk* sinatuta. Aitarik gabe egin zuten jaunartze handia Miren Jonek eta jaunartze txikia Luis Marik. Halako batean, kolegio batera sartzeko aitzakian egin zuten bidaia bestaldera ama-alabek,



Gurasoak: Joxe Azurza eta Juli Aristegieta (1926)

aita ikustera. Kanean, aita aipatu ere ez; Miren Jonek bere izena ere ezin esan kanean, izen susmagarria baitzen.

Gerra bukatutakoan itzuli zen aita, baina ez zuen lanposturik berreskuratu udal eskoletan; izan ere, 1942an haren promozioko maisu-maistrei eskolaratzeko baimena eman bazieten ere, Azurzari eta maistra bati (Arrieta anderea) Gobernazioatik ukatu egin zieten irakaskuntza ofizialean sartzea. Aldi labur batean, akademia batean aritu zen lanean. Familiari

eusteko, amak telefonista lanean hasi behar izan zuen berriro.

Hamabi urterekin bizitza aldatu egin zitzaiola dio Miren Jonek: etxeko hainbat ardura hartu behar izan zituen. Ama txandatan aritzen zen lanean; txandarik gogokoena arratsaldeko ordu bietatik gaueko hamarrak artekoa zuen, horrela etxean goizeko burubideak eginda joaten zelako lanera. Afaria prestatzearena, Miren Joneren kontura: hiru kilo eta erdi patata, txorixoa eta kafesnea. Gurasoak ez ziren penak kontatzen aritzekoak, baina kezkek gorpuzten joan ziren Miren Joneren baitan: diru eskasiagatik kezka, aita triste ikusten zuelako kezka...

Hala ere, gurasoek oso garbi zeukaten seme-alabek batxilerra egin behar zutela, baita neskak ere, eta Peñaflores institutura bidali zituzten, gaur egun Koldo Mitxelena Kulturunea dagoen eraikinerara. Orduko oroitzapenek beste kolore bat daukate: laugarren kurtsotik aurrera, elkarrekin ibiltzen ziren neska-mutilak klasean; irakaskuntzaren maila oso ona zen, besteak beste unibertsitatean errepresaliatutako irakasleak baitzituzten. Lagunetan, Arantxa Ugarte, Matia kaleko 6. zenbakian bizi ziren Enparantzatarak, 16.eko Azaldegitarak... eta Alzuetata-



Institutuko atarian ikaskideekin;
lehen ilaran ezkerretik hirugarrena da
Miren Jone (1947-03-07)



Zarauzko Euskal
Jaian (1947-09-09)

rrak. Alzuetatarren artean, Mari Karmen izan zuen adiskide, gerora Santo Tomas Lizeoko zuzendari izango zena; Miren Jone akordatzen da nola batxilerreko garaian beti gertatzen ziren ikasgela berean Alzuetatarren bat eta Azurzatarrren bat.

Mendizorrotzen,
giro abertzaleko
gazteak biltzen
zirenean (1948)

Gerra osteko desertu hartan, baziren gauza atseginak ere: asteroko *Chicos* aldizkaria, senideek txandaka irakurtzen zutena; *Acción Católica*ko korua, apaiz batek zuzendua, gabon kantetako lehiaketan irabazle. Handik aurrera, argazkiek ematen dute aisialdiaren berri: 1947ko irailaren 9an Zarauzko Euskal Jaian ageri da Miren Jone, amaren baserritar jantziarekin;

Mendizorrotzen
anaietako
hirurekin: Ramon,
Joxe Joakin eta
Luis Marirekin,
Joxe Joakinek
alde egin baino
lehentxeago
(1949-03-20)



1948an, Mendizorrotzen, lagunekin; hurrengo urteko martxoaren 20an toki berean ateratakoan, lau senide zaharrenak daude: «Joxe Joakinek alde egin aurretik izan zen hori; historikoa bihurtu zen argazkia familian».

ANAIA IRRATIZALEA

Batxilerra bukatzean, *Plan de Adecuación al Magisterio* zeritzanean sartu ziren Miren Jone eta Joxe Joakin. Joxe Joakinek, dena dela, garbi zeukan irratiazen munduan aritu nahi zuela; hamalau urterekin, uda osoa igaro omen zuen irratiazi buruzkoak ikasten; irradi amateur bat ere jarri zuen etxean. 1948ko Aberri Egunean, etxean bertan entzun zuten aita-alabek irratitik:

«Euskotarrok, entzun!: Gaur, Aberri Eguna da. Gora Euskadi Askatuta!».

Aitak Miren Joneri: «Bera da, ezta?».

Radio San Sebastiánen emisioa eten eta entzun ahal izan ziren hiru esaldi horiek.

1948ko urriaren 28an –San Simon eta San Juda egunean–, poliziek, Joxe Joakin atxilotu, eta etxera eramane zuten, irradi amateurra zegoen gela zigilatzeke asmotan. Handik aurrera, filmekoa dirudien ihesaldia hasi zen. Joxe Joakinek, ohazal bat hartu, eta patioko balkoitik zintzilikatzeko eskatu zion Miren Joneri; bertatik, Loren Arrillagaren etxera jaitsi zen; poliziak haren zain, komunean zegoelakoan, baina komunetik Ramon atera zen, ez Joxe Joakin. Poliziak Ramon eramatekotan hasi zirenean, Miren Jonek: «Llévenme a mí, que soy mayor que él»; baina Ramon eramane zuten. Bitartean, Joxe Joakin beste nonbait ezkutatu zen; gero, Iparraldera egin zuen ihes, itsasoz. Hamaikagarren egunera izan zuten haren berri etxekeok. «Aitaren panorama ikusita egin ginen gu abertzale», dio Miren Jonek.

Joxe Joakinek erbesterako bidea hartu zuen. Parisen, besteak beste UNESCOko itzultzaile gisa ateraz bizibidea, telekomunikazio ingeniaria ikasi zuen. Neska euskaldun batekin ezkondu, eta Venezuelara jo zuen; hogeita hiru urtez bizi izan



zen han. Berak muntatu zuen Euzkadi Irratia –oihanetik emittitzen zuen–, Francoren garaian hainbestek hain estimatua. Euskal Herrira itzultzean, Euskal Irrati Telebistaren sorrerako teknikaren arduraduna izan zen. Polemista izatez, iritzi artikulua ugari argitaratu zituen hemengo egunkarietan; *Jota Jota* Azurzaren sinadura ohikoa eta ezaguna izan zen urteetan, baita bere goitizenak ere: *Zarautz*, eta, batez ere, *Pertinax*.

Luis Mari ere Venezuelara erbesterratu zen, eta hamahiru urte egin zituen bertan. 1962 inguruan, kartzelan sartu zuten Ramon, Carabanchelen, ordurako bi alabaren aita zela. Epaiketa ere egin zioten, baina epaitu nahi zutenaren izena Luis Mari zen, eta hala libratu zuten azkenean Ramon.

Karreradunak ziren lau anaiak: Iñaxiok telekomunikazioko ikasketak egin zituen, Joxe Joakinek bezala; Luis Mari mediku psikiatra izan zen; Ramon zuzenbidean doktoratu zen, eta enpresaren munduan jardun zuen.



Madrilgo Zurbano kalean,
amarekin (1962)

Bokazioaren deia

ITUN BERRIA

Aitak opari bat egin zion Miren Joneri 18 urte zituenean: Lau Ebanjelioak jasotzen zituen liburua; hau da, *Itun Berria*, «azal urdineko liburu polita». Erabakigarria gertatu zitzaion bertan aurkitu zuen Jesusen esaldi hau: «Utzi denak, eta jarrai niri».

Ordurako mutil batekin zebilen Miren Jone, baina utzi egin zuen. Don Francisco Yarza apaiza nesken kontseilaria zen *Acción Católica*ren barruan, eta propagandista izateko eskatu zion, euskaraz jarduteko norbait behar zutela-eta; lanpostu bat ere eskaini zion Lizarriturri lantegian. Miren Jone, ordea, «dena uzteko» garaian zegoen, bokazio erlijiosoaren sentitu baitzuen

19 urte zituela. Donostiako Santa Teresa egoitzan, gogo-jardunak egiten, ezagutu zituen Misiolari Sekularrak eta haien bidez Gasteizen topatu zuen toki aproposa: erresidentzia bat, neska laikoentzat, bakoitzak bere lekutik bizi izateko kristautasuna. Urtebete kosta zitzaion aitaren baimena lortzea, eta halako batean, 1950eko apirilean, han zen, Misiolari Sekularren egoitzan. Aitak, bisitara joaten zitzaionean, esaten zion: «negu honek eramango nau»; 1952an hil zitzaizen aita, bihotzekoak jota, 57 urterekin. «Tristuraz hil». Joxe Joakin igarobaimen batekin etorri zen aitaren hiletara Paristik; itzuli, itsasoz itzuli behar izan zuen Iparraldera, mugan poliziak baitzituen zain.

Rufino Aldabalde Aiako apaizak sortua zen Misiolari Sekularren Institutua. Seminarioko irakasleek ematen zizkieten kla-seak misiolarigaiei, eta urte pare bateko prestaketaren ondoren topatu zuen lana Miren Jonek, irakasle gisa hasieran eta gero zuzendari, Avilako *Residencia Ciudad Ducal* izenekoan, «aberatsen alabak» hezten. Estatu osotik bildutakoak zituzten: Madril, Sevilla, Katalunia, Bilbo... Udan, Salamancara aldatzen ziren. Bestelako proposamena izan zuten 1955. urte inguruan: Texaseko San Antonion ikasle hispanoamerikar behartsuentzat fundatu behar zuten ikastetxe batera joatea lau misiolari, tartean Miren Jone zuzendari gisa; asmo hark ez zuen aurrera egin, ordea, eta Gaztelan jarraitu zuen Azurzak.

Hartan ari zela, «ikusi zuten idazten bane-kiela» eta *Vida Nueva* aldizkari katoliko-rako liburu baten iruzkina eskatu zioten. Eta horren ondoren etorri zen proposa-mena: emakumezko bat behar zutela eta ea bertan sartuko zen. Horrela hasi zen bere kazetari ibilbidea, Madrilen, Zurba-no kalean bizi zela.

Lehen erreportari lana berezia izan zen: Belgikako erregearekin ezkontzera zi-hoan Fabiola de Mora y Aragóni elka-rrizketa egitea. «Elkarrizketa zaila –dio–,

diskrezioarengatik. Behin ere ez nuen pentsatuko aristokraziarekin harremanik izango nuenik, eta bat-batean erregina-gaiarengana ere iritsi nintzen».

Bigarren urterako erabaki zuen kazeta-ri titulua atera beharra zeukala, eta hala sartu zen Kazetaritza Eskola Ofizialean. Amaitu, Mariano Ferrer gerora hain ka-zetari ezaguna izango zenarekin batera. «Ez nuen ezer ikasi» dio, baina bazuen beste eskolarik: *Vida Nueva*n goizetan eta Acción Católicaren *Impulso* aldizkarian arratsaldeetan; erredakzioko martxa ikasi zuen haietan. Praktikak Bilbon egin zituen, *La Gaceta del Norte* egunkarian, eta haiek bukatuta Donostiara itzultzea era-baki zuen. «Amak 65 urte zituen, semeak hor nonbait zebiltzan...».

1965. urtea zen, eta Donostian lehen lana Ricardo Alberdi apaiz irundarrak zuzen-tzen zuen Ethos argitaletxean izan zuen, Mari Karmen Alzuetaren bidez lortuta. Ricardo Alberdi Elizaren dotrina sozial berriaren ekintzailea zen; eskola sozialak antolatu zituen eta lan handia egin zuen argitalpenetan. Hainbat bilduma atera-tzen zituen Ethosek, eta, haien artean, «Indira» izenekoa sortu zuten, emaku-mezkoentzat; agerkari horren zuzenda-ri jardun zuen Miren Jonek urte eta er-



Erroman,
gotzainen
sinodoa egin
zenean (1967)

diz. Lehenengo idatzi zuen liburuxka «emakumea eta lana» gaiari buruzkoa izan zen.



Donostian,
*Zeruko Argia*ko
garaian (ca. 1970)

Garaitsu hartan, 1967an, Erromara joateko aukera izan zuen, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren ospatu zen gotzainen lehen Sinodora. Hilabete eta erdi eman zituen han, goizero meza San Pedro basilikan entzun eta ondoren idazkari lanetara, gotzain iberoamerikarrak biltzen zituen CELAM erakunde-
dean. «Behin Paulo VI.a Aita Santua gertutik ikusi nuen, txiripaz, oso leku debekatutik».

ZERUKO ARGIAN ZUZENDARI

Madrialdik Donostiara itzultzean, txartela utzita zuen *Zeruko Argia* astekarian, noiz-bait bere lankidetzara behar bazuten ere; eta hala, deitu zioten, 1967an. Ricardo Alberdi apaizak animatu zuen baietza ematera, «bestela, komunistak sartuko zirela-eta».

Kaputxinoen aldizkaria Agustin Ezeizak zuzentzen zuen; kazetari tituludun bat behar zuten argitaratu ahal izateko, eta Iñaki Gabilondo kazetari gerora famatuak uzten zien izena; hura Sevillara joan zenean, beste norbait bilatzera behartu ziren; horrela sartu ziren *Zeruko Argian* Andoni Iturria zarauztarra zuzendari gisa eta Miren Jone erredaktore. Iturriak urtebetera aldizkaria utzi zuenean, Miren Jone jarri zuten zuzendari; 1969tik 1975era bete zuen ardura hori. Hori bai, sekula Prentsa Elkartean sartzea lortu gabe; izan ere, orduan, *Hoja del Lunes*etik ateratzen zen dirua Elkarte-koen artean banatzen zen, eta Elkarteak egunkarietan lan egiten zutenak bakarrik amestitzen zituen bazkide gisa. Euskarazko prentsan ari zirenek, tituludunak izan arren, bidea itxita zeukaten.

Zeruko Argia, 1963an berrargitaratzen hasiz geroztik, euskal munduaren adie-

razpide nagusietako bat izateko bidean zihoan. Miren Joneri arrapaladan jaulkitzen zaizkio han topatu zituenak: On Nemesio Etxaniz nekazina, Vietnamgo gerra garaia izan, eta *guerra de guerrillas* eta halakoak euskaraz nola esan zitezkeen asmatzen zuena; Inazio Eizmendi *Basarri*, «Nere bordatxotik» saila idazten zuena; Jose Artetxe idazlea, hura ere asteroko artikulugile. Eta gazteak, «Gazte naiz» sailaren inguruan bilduta: «Rikardo Arregik ordu asko sartzen zituen; eta asko laguntzen zuten Begoña Arregik, Xabier Letek, Andu Lertxundik, Edorta Kortadik, Pako Garmendiak, Mari Karmen Garmendiak...». Ekonomian, Gurutz Ansola eta Eugenio Ibarzabal aritzen ziren. Eta segidan, badatorkio beste izen zerrenda bat ere: Joxe Artola, Mikel Ugalde, Joxe Mari Aranalde, Mikel Atxaga, Amatiño...

«Miren Jone Azurzarik ez balitz, ni ez nintzateke gaur egun kazetari izango»; aitortpen hori egiten du Amatiñok bere blogean, eta kontatzen du nola fitxatu zuen Miren Jonek *Zeruko Argiarako*. Miren Jonek gogoratzen du nola Luis Alberto Aranberri *Amatiñok* Eibarko kronikak idazten zituen, eta, haietaz gustatuta, Edorta Kortadi eta biak joan ziren Eibarrera, Aranberriarren Margola lantegi-

ra, Amatiño fitxatzera: «Egingo zenuke orri erdi bateko kronika Euskal Herri guztikoa?». Eta horrela jaio zen «Zenbat gara» atala, euskarazko kazetaritza modernoaren sorburuetako bat, orri erditik osora pasata bigarren asterako. Gehiago ere badio Amatiñok: «[...] Miren Jone Azurza izan zen 1970. urtearen inguruan euskal kazetaritzak ezagutu zituen aldaketarik handien ardatz eta zutuin nagusia».

Horretarako, lan taldea antolatzen jakin zuen Miren Jonek. Amatiñorena bezala, beste fitxaketa erabakigarri bat Mikel Atxagarena izan zen. 1963an *Zeruko Argia* berpiztu zenetik zebilen Atxaga han



1969-1975 bitartean izan zen *Zeruko Argiako* zuzendari

Donibane Lohizunen Txillardegik, Mikel Atxaga, Joxe Mari Aranalde, Jexux Mari Mujika eta Joxe Azurmendirekin (1973)





Ramuntxo
Kamblong
eta Piarres
Xarritonekin,
Donibane
Lohizunen (1973)

kolaboratzaile gisa. «Editorialak idazten zituen jada eta Usurbilgo baserritarren kooperatiba batean zebilen lanean. Joan nintzen eta esan nion: gure asmoa zu fitxatzea da, aseguru eta guzti». Lehenengoan, ezetza eman zien Atxagak; baina, urtebetera, «libre nago joateko», eta sartu zen *Zeruko Argian*, 1970ean.

Miren Jonek *Vida Nueva*ko erredakzioan ikasitakoa zeraman aldizkariaren antolaketari zegokionez. Astean behin, bilera egiten zuten aldizkariko arduradunek Okendo 22ko egoitzan; «kafea Legardatik» –hurbileko tabernatik– eramanda. *Zeruko Argia*, *Herria* bezala, egunkariaren

gisako formatu eta paperean argitaratzen zen orduan. «Edukiei dagokienez, erreferentzia nagusia aldizkari frantsesak genituen. Rikardo Arregik asko irakurtzen zituen *Le Monde* eta beste». Miren Joneren garaian eman zuen *Zeruko Argiak* iritzi artikuluen bilduma izatetik kazetaritzaren bestelako generoak ere –elkarrizketak, erreportajeak...– lantzen zituen astekaria izaterako jauzia.

HATXEA ETA ZENTSURA

Okendo 22ko bulegoa euskal munduko pertsonaia askoren sartu-etxe bihurtuz zihoan poliki-poliki. Han ezagutu zituen Miren Jonek On Manuel Lekuona, Koldo Mitxelena, Ibon Sarasola, Jorge Oteiza... Haren bisita bat dauka gogoan: bulegoko horma batean arkatzez egina zegoen marrazki moderno batek Oteizaren arreta piztu zuen: «Nork egin du hau?». Edorta Kortadik marraztua zen, denboratan, poliki-poliki. Oteizaren epaia: «Mugimendu pixka bat falta zaio, baina ez dago gaizki». Kontua da ezarian-ezarian euskal kulturaren munduan erabat murgildu zela Miren Jone *Zeruko Argiarekin*. Fernando Aire *Xalbador* ere ezagutu zuen, Joxe Mari



Dionisio Amundarainekin, hau *Zeruko Argiako* kolaboratzaile zenean, *Amuntsa* izengoitiarekin (ca. 1971)

Aranalderen bidez, eta bi udatan zortzi eguneko egonaldiak egin zituen Urepelen, bertsolariaren etxean.

«Kazetaritzako hizkerarik ez geneukan. Xalbador Garmendia fitxatu genuen zuzentzaile gisa; Iparraldetik etorri berria zen, han euskara hobetzen ibilita». Euskararen batasuna orduan ari zen lehen pausoak ematen, 1968an Arantzazun egindako bileraz geroztik. Eztabaida pil-pilean zegoen euskal munduan, batasun haren alde eta kontra zeudenen artean; H-aren erabilerak irudikatzen zuen haus-tura. Eztabaida haren erdian, On Manuel Lekuonari egin zion galdera Miren

Jonek, eta hark erantzun: «H-a berea du euskarak». «Handik aurrera idazle bakoitzari bere aukera errespetatu bai, baina poliki-poliki Euskaltzaindiaren aholku-etara errenditu ginen». Bitxia gertaera, ze Manuel Lekuona euskaltzainburu izana maisutzat hartu zuten gerora euskara baturaren eta H-aren aurkakoek.

Baina baziren beste borroka-leku batzuk, eta ez makalak. Zentsura zen etsai nagusia. Aldez aurretikako zentsuraz gain, ondoren zetorrena: epaitegietatik, maiz deiak. Bi hitz debekatu dauzka Miren Jonek iltzatuta: *naziotasuna* eta *batzokia*. «Hogeita bost mila pezetako isunak jarri izan zizkiguten, baina azkenean ordaindu beharrekoa baino diru gehiago biltzen genuen, eskatu ere egin gabe, jendeak emanda».

Dena dela, epikari baino toki gehiago ematen dio Miren Jonek egunerokoari. Hala, *Zeruko Argia*-ren zenbaki berezi bat dauka ikurtzat: 400.a –1970eko azaroaren leian argitaratua–, entziklope-

Eugenio Ibarzabalekin *Zeruko Argiako* garaian; gerora *Deian* eta *Muga* aldizkarian aritu ziren elkarrekin (ca. 1971)





Zeruko Argiaren 400. zenbakiaren azala (1970-11-01)

ahazten Miren Joneri herrietako kronikak idazten zituztenak, *Zeruko Argiaren* laguntzaile sail xume bezain fina. Haiekiko esker ona ez zaio oraindik agortu.

Bukaera mikatza izan zuen Miren Jonek *Zeruko Argian*. 1974an, urte amaierako batzar nagusian, dimisioa eman zuen. Aurreko hilabeteetan «ezin moldatu arraro bat» sentitzen zuen. «Ziotenez, ez zen nire beharrik *Zeruko Argian*, eta, gainera, kalte egiten ari omen nintzaion». Ezin moldatu horren atzean Miren Jonek arra-

dikoa izan baitzen nolabait; euskal literatura, ekonomia eta politika, artea eta musika, irakas-kuntza, erlijioa eta teologia jorratu zituzten. Idazle andana bildu zuten horretarako, ordurako helduak zirenetatik gazteenetaraino, horretan ere zerrenda entziklopedikoa osatuz. Eta haien ondoan, ez zaizkio

zoi politikoak ikusten ditu, «aldizkaria ezkerrera eraman nahi izatea» zehazki. Kazetaritzak beste aukera batzuk eskainiko zizkion, ordea.



Argian Xabier Letonak eta Estitxu Eizagirrek egindako elkarrizketarako Dani Blancok ateratako argazkia (2009-05-16)



Deiako erredakzioan (1977-02-03)

Espiritualitatea atsedenleku

DEIATIK DEIA

Lanez arinduta, Historia ikasketak egitea erabaki zuen, Deustuko Unibertsitatearen Donostiako egoitzan, orduan EUTG deitzen zitzaionean; urtez urte burutu zituen, 1975-80 bitartean, ikasle gazteekin batera. Irakasleen artean, Asun Urzainki, Xose Estevez, Montserrat Garate eta Jose Luis Orella.

Bizibidea ateratzeko, pare bat lan izan zituen. Bata, estilo zuzentzaile modura CCC-n, posta bidezko ikastaroen zentroak Mirakruz gainean zeukan egoitzan; lan eroso zen berarentzat, «geneetan baitaramat, amarengandik jasota, gramatika»; urte eta erdi jardun zuen horretan.

Halako batean, iragarki bat topatu zuen egunkarian: Michelin enpresak gizonetzko kazetari bat («*periodista varón*») eskatzen zuen. Aurkeztu zen gizonetzkoa ez zen kazetaria, eta, berrehunen bat eskariren artean, berarena hautatu zuten. Eginkizuna: Lasarteko Michelin-en enpresa aldizkarian aritzea; bihilabetekaria zen, eta «aspertu egiten nintzen; astebetean bukatuta neukan bi hilabeteko lana». Hartan, non deitzen dion Javier Aranburu kazetariak sortzen ari zen *Deia* egunkaritik; ez zuen bi aldiz pentsatu baiezkoa emateko.

1977ko ekainean jaio zen *Deia*. Egoitza nagusia Bilbon eduki arren, ordezkaritza zeukan Donostiako Karlos I.a kalean; bertan aritu zen Azurza. Kulturako gaiak, elkarrizketak, udaleko gorabeheren ja-

rraipena... Egunero, iritzi zutabe bat ere idazten zuen, *Juan Olalde* sinatuta: «Izen hori zen gerra garaian jana ematen zigan dendariarena, gero, ahal zenean ordaintzekotan»; dendari eskuzabalari omenaldia. Lan hori zuen gogokoena. «Ondoren, “Kalejira”: Donostiako kaleetan ikusten nituen gauza xebreak kontatzeko». Jesus Pemán argazkilariarekin beste tarte bat ere osatzen zuen, jendearen iritziak jasoz.

Garaia eta *Muga* aldizkarietan ere kolaboratu izan zuen aldi berean. Horrela hamabi urte, harik eta aurre-erretiroa eskaini zioten arte. «*Deian* zoriontsu izan nintzen» aitortzen du batere zalantzarik gabe. «Astelehena iritsi eta poz-pozik lanera joateko».

SETIENEN PRENTSABURU

Kalean topatu zuen hurrengo aukera. Bederatzi hilabete zeramatzan erretirata, eta hara non Jose Antonio Pagola eta Imanol Aldaregia gotzain-bikarioekin topo egin eta esaten dion Aldaregiak: «Kazetari bat behar dugu»; gotzaindegian alegia, Jose Maria Setien gotzainaren barrutian. 90eko hamarkadaren hasiera zen, «ETA pil-pilean zegoen, eta gotzainari

izugarrizko irainak botatzen zizkioten Madrilgo egunkarietatik. Atentaturen bat zen aldioro ohar bat kaleratzen zen. Setienek eskuz idazten zuen; zirriborro hura ordenagailura pasatu, eta hedabide guztietara bidaltzen nuen faxez; hori, edozein zela eguna eta ordua». Horretaz gain, prentsaburuari dagozkion beste eginkizun batzuk zituen, hala nola hedabideetatik egiten zituzten deiak jaso eta bideratzea.

Sei urte eman zituen Miren Jonek arlo horretan, gotzainaren hurbileko taldea osatzen zutenekin batera; Pagola eta Aldaregia bikarioez gain, Setiennen idazkari Joxe Eizmendirekin eguneroko lan harremanak zituen. «Pertsona apartak nituen inguruan: Joxe Mari Madina, ekonomia bikarioa; Karlos Agirre, Eustasio Etxezarretarekin liturgiaren arduratzen zena; Jose Luis Casla informatikaria... Berrogei lagun ginen egunero lanean».

ETA MAITASUNA!

Hogeita bat urteren ondoren, 1971n, misiolari sekular izateari utzi egin zion Miren Jonek: kristau soil gisa bizi nahi zuen gizartean. Egoera horretan bedera-



Gernikan (1989-07-27)

tzi urte zeramatzala, maitasunaren harra sentitu zuen, gizon bat bilatu nahi zuen bizitzarako lagun.

1980ko urtarrilean gertatu zen hori. «Arantzazun ezagutu nuen Joxe Mari, lanen bat egitera joanda nintzela; *fletxa*-zo bat izan zen; gustatu zitzaidan beraren irribarrea. Alarguna zen, kristaua, aber-

tzalea, bizi esperientzia zeukana... Ez zen hiztuna. Ikusi nuen lagun baten beharra zeukala, eta iruditzen zitzaidan altxa nezakeela nik gizon hura, eta beraren esperientziaz baliatu».

«Ezkontzen ez bagara, a zer bihotzondokoa emango didazun» esan zion behin Joxe Marik. Urtarrilean elkar ezagutu, eta San Juan bezperan ezkondu ziren, Zubietan; bazkaria –«xumea», ohartarazten du Miren Jonek–, Igeldoko Gudamendi hotelean.

Joxe Mari Aiestaran, Beasaingo Aingeru baserri-errotakoa, berrogeita gehiago urtez Indar lantegian motorretarako modelogile izan zen.

«Txoritan dena zekien: izenak, kantuak...; zuhaitzak ere denak ezagutzen zituen. Pilotari buruz asko ikasi nuen berarekin...». Eta elkarrekin egin zituzten bidaiak: Pirinioetara, Bartzelona eta Madriler, Erromara, Holandara...; eta txangoak Fiterora, Mendigo-

Joxe Mari Aiestaran
senarrarekin
(1984-03-18)





Izaskun ilobaren
ezkontzarako prest
(2007-10-20)

rrira, Errioxara...; eta beste batzuk ere bai, Catalina de Erauso klubekoekin... «Oso zoriontsu izan ginen», aitortzen du Miren Jonek bete-betean. Eta hor sartzen du baita Joxe Mariri gaixotasuna azaldu zitzaion ondorengo aldia ere; odolean plaketa falta antzeman zioten 1995ean; azken bi urteak etxean eman zituen, hamahiru aldiz erietxean ingresatuta, 2003ko martxoan hil zen arte. Hogeita hiru urte elkarrekin, helduaroko maitasuna bizi izaten.

Joxe Mariren gaixotasunak osasuna hobeto ulertzen lagundu zion Miren Joneri. Gaztetandik ondoezak izaten zituen, larrialdiak... Eritasun larria gertutik bizitzea sendagai gertatu zitzaion, eta hala uxatu zituen bere ajeak. Horrekin eta «Jainkoarekin bizi izateko modu berriarekin».

KRISTAUTASUNEAN BILAKAERA

«Lehenik eta denen oinarri, kristau izatea daukat nire pertsonaren mamitzat». Baieztapen hori tinko bota zion Miren

Jonek Joxe Arregiri, *Hemen* aldizkarirako egin zion elkarrizketan; hori oinarria, baina, denboraren poderioz, bilakaera etengabea. «Duela lau zapabost urte liburu bat ekarri zidan Ana Mari González lagunak: *La sabiduría recobrada, filosofía como terapia*, Mónica Cavallérena»; mugarría gertatu zitzaion XXI. mendeko espiritualetatearen bideetan sartzen hasteko. Hurrezkeroztik, irakurketa mota horrekin jarraitzen du. Jose Antonio Pagola, Enrique Martínez Lozano, Xavier Melloni, Joxe Arregi eta abarren idatziak hurbiletik segitzen ditu, baita ingurumari horretan antolatutako erretiro eta gogo-jardunak ere. Horiekin batera, mistikako klasikoak ditu gogoko: San Juan de la Cruz eta Santa Teresa. Hamabostean behin, Donostiako Seminarioan izaten den otoitz taldean parte hartzen du, eta egunero eskaintzen dio denbora meditazioari; meditazioari eta otoitzari. Otoitza «ukendua» da berarentzat. Eta horrela, bakean bizi da, barneko bake sakon horretan. «Iristen denean ikusi beharko heriotzaren beldurra zer den. Baina oraingo patxada hau ere Jaunaren oparia dut», erantzun zion Joxe Arregiri *Hemeneko* elkarrizketan, heriotzak beldurrik ematen ote dion galdetu zionean.

Kritikoa da Eliza ofizialarekiko, zorrotza. Berotu egiten da egungo hierarkiaren



erabakiak eta bidea ikusita; hala ere, eta bizitzan zehar krisiak izan dituela aitortu arren, kristau fededun izaten jarraitzen du eta, hortik, espiritualitatea lantzen; hartaraino, hitzetik hortzera ateratzen zaiola gaia. Alderdi intelektualak, emozionalak eta espiritualak bat egiten dute berarengan, urteetan metatutako bizi esperientziaren emaitza gisa.

Seme-alabarik ez du izan Miren Jonek, baina izeba oparoa da: hamazazpi ilobarena eta haien umeena. Batzuk kanpoan

bizi dira: New Yorken Aitzol, besoetakoa; Alemanian Miren Jone, Londresen Koldo, Parisen Todor, Hong-Kongen Jon... Hala ere, familiaren elkartasuna ez da galdu Azurzatarraren sagan. Bizi, bakarrik bizi da, San Martin kaleko atiko argi eta polit batean, bere auzoa, Antigua, han barrenean eta Igeldo eta itsasoa begi bistan. Terrazan dauzkan landareetara, tarteka, txoriren bat hurbiltzen da. Orduan, Joxe Mari etortzen zaio gogora, zuhaitzak eta txoriak hain ondo ezagutzen zituen gizona.

Idazten jarraitzen du beti ere (2013-02-19)



Izeba oparoa:
Miren Jone
ilobaren
bataioan,
Ramon
anaiarekin
(1960ko
abuztua)

Estetikari garrantzi handia ematen dio, hala bere soinean, nola bere etxean ere. Kapritxozko ohazal bat erakusten du harro, nazioartean eza-gunak diren kazeten mantxetekin osatua: *Il Corriere de la Sera*, *France-Soir*, *The New Times*... Kazetariaren markak. Idatzian, izan ere, esparru horretan ibili da beti –kazetaritzan–, baina poesiara jotzen du bere sentipenak hitzez adieraztean: «Jaungoikoa gizaki bakoitzean, Izadi osoan, edertasunean... eta, batez ere, nire barru-barruan daramat, baina oraindik bidea daukat aurrean, eta azkenean zorion betea espero dut». Amaieran, Iratze-der Belokeko poetarena dakar: «Zer naiz ni, Jauna, ez banaiz Zu?».



Kazetariaren ohazala (2013-02-19)

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Miren Jone Azurza Aristegietari
- Dani Blancori (*Argiaren* 2.195 zenbakian argitaratutako argazkia)

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2020ko urtarrilean
Ale-kopurua: 2.300 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: Centro Gráfico Ganboa, S.A.
Inprimaketa: Centro Gráfico Ganboa, S.A.
ISBN: 978-84-457-3526-8 (Lan osoarena)
978-84-457-3528-2
L.G.: LG G 00223-2020



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA